

I. A/Gaztedi Plan Kutxabank Online Xake Txapelketa

1.- KUTXABANK SAK xake txapelketa bat egingo du online, eta Gaztedi Planaren, A Planaren, Gaztedi Kontuaren eta A Kontuaren titular guztiek parte hartu ahal izango dute, erakundeak dituzten lege-ordezkarien bidez.

Txapelketaren helburua publizitatea eta sustapena egitea da; hortaz, parte hartzaileek ez dute gainpreziorik edo tarifa osagarriarik ordaindu beharko.

2.- Gaztedi Planaren, A Planaren, Gaztedi Kontuaren eta A Kontuaren titular guztiek parte hartu ahal izango dute txapelketan, erakundeak dituzten lege-ordezkarien bidez. Kutxabanke kanpoan utzi ahal izango ditu erakundeak saldo zordunak dituzten pertsona fisikoak.

3.- Parte hartzeko, pauso hauek eman beharko dira:

1. lichess.org gunean profil bat sortu aitaren edo amaren datuekin eta Nick batekin. Horixe izango da haur parte-hartzailea identifikatzeko izena.
2. Kutxabank Cajasur taldea sartzeko eskaera egitea esteka honetan:
<https://lichess.org/team/kutxabank-cajasur>
3. Formularioko datuak betetzea: Aitaren edo amaren izena eta NANA, adingabearen Nicka, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.

Adingabearen lege-ordezkariek lege-oinarri hauek irakurri eta onartu beharko ditu.

4.- 2020ko uztailareko larunbatetan parte hartu ahal izango da txapelketan, honako larunbat hauetan: uztailak 4 - uztailak 11 - uztailak 18 – uztailak 25.

5. Kirol oinarriak: Bizkaiko Xake Federakuntza arduratuko da antolakuntza teknikoaz.

Taldeak 3 adin kategoriatan banatuko dira:

- a. 18 urtez azpikoen txapelketa (2002 eta 2005 urteen artean jaiotakoak) .
Orduetgia: 12:00-13:00
- b. 14 urtez azpikoen txapelketa (2006 eta 2007 urteen artean jaiotakoak).
Orduetgia: 8:00-22:00
- c. 12 urtez azpikoen txapelketa (2008 eta onodorenko urteen artean jaiotakoak).
Orduetgia: 10:00–11:00

- Txapelketak ordubete iraungo du.
- Sistemak automatikoki sortuko ditu bikoteak.
- Partida amaitzen denean, «txapelketara itzuli» aukera hautatu behar da, sistemak beste aurkari bat esleitzeko.
- Partidak 5+3 erritmoan jokatuko dira (5 minutu eta hiru segundo, jokaldi bat egiten den bakoitzean metatzen direnak).
- Honako puntuazio-sistema hau erabiliko da:

Hasteko, garaipenarekin 2 puntu eskuratuko dira; berdinketarekin, puntu 1; eta porrotarekin, 0 puntu.

Bi partida jarraian irabaziz gero, puntuazio bikoitzeko boladari ekingo diozu, eta sugarraren ikonoa agertuko da pantailan. Une horretatik aurrera, irabazteari uzten ez diozun bitartean, partida bakoitzak balio bikoitza izango du, hau da, garaipenak, 4 puntu, eta berdinketak, 2 puntu. Porrotaren balioa 0 puntukoa izango da beti.

Esate baterako:

Hiru garaipen jarraian lortuz gero, 8 puntu: $2 + 2 + (2 \times 2)$

Bi garaipen eta berdinketa bat, 6 puntu: $2 + 2 + (1 \times 2)$

Bi garaipen, porrot bat eta berdinketa bat, 5 puntu: $2 + 2 + 0 + 1$

Ezinbestekoa balitz, Kutxabankek bertan behera utzi ahal izango luke txapelketa, eta partaideei horren berri emango lieke.

6.- Sariak: Adinaren arabera 3 kategoria egongo dira. Kategoria bakoitzak txapelketa bat jokatuko du 4 larunbatetan. Txapelketa bakoitzak 3 irabazle izango ditu:

- a) 18 urtez azpikoen txapelketa. 3 irabazle txapelketako larunbat bakoitzeko. x4 larunbat: 12 irabazle guztira.
- b) 14 urtez azpikoen txapelketa. 3 irabazle txapelketako larunbat bakoitzeko. x4 larunbat: 12 irabazle guztira.
- c) 12 urtez azpikoen txapelketa. 3 irabazle txapelketako larunbat bakoitzeko. x4 larunbat: 12 irabazle guztira.

36 irabazleetako bakoitzak xakean aritzeko materiala irabaziko du (adinaren arabera prestakuntza-liburuak, jokoak...). Sariak ezin dira metatu. Hortaz, jokalaria bakoitzak sari bakarra eskuratuko du, bere garaipen kopurua edozein dela ere.

Horrez gain, kategoria bakoitzeko irabazle nagusi bat aukeratuko da, lortutako puntuazioa aintzat hartuta, eta *smartwacht* bat irabaziko du.

7.- Txapelketaren emaitza posta elektronikoz, telefonoz edo sare sozialen bidez jakinaraziko zaio saridunari. Irabazleak 24 orduko epea izango du, posta elektronikoz jasotako jakinarazpenean eskatuko zaion informazioa emateko. Horrela egiten ez badu, saria eskatzeko eskubidea galduko du. Lege-oinarrietako baldintzak betetzen dituen zozketako hurrengo erreserbak hartuko du haren lekua.

8.- Sustapen honetako saria ezingo da inola ere saridunaren eskariz aldatu, moldatu edo konpentsatu, ez eta bere balioa dirutan eskuratu ere.

9.- Kutxabankek erabakiko du bezeroei saria nola eta non banatu.

10.- Lehiaketan parte hartzen bada, saria lortu duten parte-hartzaileen datuak Kutxabanken informazio sisteman sartuko dira eta edozein publizitate edota sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, haien izena, abizenak edota irudia jasotzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko helburuarekin tratatuko dira soil-soilik. Ekinbide horiek ez dute ordainsari edo

etekinik eskuratzeko eskubiderik sortuko, saridunaren edo, hala dagokionean, bere legeordezkariaren baimena berariaz jasota badago. Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoiz. Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide hauek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken edo Cajasurren helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu hauetan, NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Zure datu pertsonalak araudiak esan bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Delegetuarekin harremanetan jar zaitezke dpo@grupokutxabank.com helbidean.

11.- Saridun bezeroak sariari uko egin ahal izango dio, baina ezin izango dio beste pertsona bati laga. Kasu horretan, saria puntu gehien dituen hurrengo parte-hartzaileari emango zaio.

12.- Inolako jakinarazpenik (onartze edo ukatze-agiririk) jasotzen ez bada, eta bezeroari jakinarazpena bidali zizaionetik 24 ordu igaro badira, sariari uko egin diola ulertuko da. Horrenbestez, Kutxabanke sariarekin nahi duen bezala jarduteko eskubidea izango du.

13.- Saria jaso ahal izateko, txapelketan parte hartzen duen bezeroak egunean izan behar ditu ordainketak eta Kutxabankekin egindako eragiketa guztiak. Hortaz, ez dute, saldo zordunen ondorioz, zorrik izan behar Kutxabankekin txapelketaren egunean.

14.- Lege-oinarri hauek bezeroen eskura egongo dira erakundearen webgunean.

15.- Txapelketan parte hartzen duten bezeroek oinarri hauek onartzen dituzte, bai eta oinarri hauekin sortu daitezkeen gorabeherak konpontzeko Kutxabanke erabiliko duen irizpidea ere. Txapelketaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu Kutxabanke.